



AZERIA

Kategoria: Ornoduna

Klase: Ugaztuna

Familia: Kanido

Izen zientifikoa: Vulpes


ITXURA

Azeriak **buru txikia** du, **mutur zorrotza** eta **hiruki formako belarriak**, alde guztietara bira ditzakeenak.

Buztan luze eta iletsua du, eta azeri gehienek (azeri arruntek) **ile gorrixka** dute.

Txakur ertain baten gorputzaren tamaina du, (60-80 zentimetro inguru).

Azeri **arrak emeak baino handiagoak** dira. **Arrek 6-7 kilo** pisatzen dute; eta **emeek**, berriz, **4-6 kilo** inguru.



BIZITOKIA

Azeriak ia **munduko edozein tokitan** bizi daitezke: basoetan, mendietan, leku hotzetan baita basamortuetan ere.

Normalean beraien **bizilekua toki ezkutuetan egiten dute**, adibidez harri arteko zuloetan edo zuhaitzen enborretan.

ELIKADURA

Azeriak animalia **orojaleak** dira. hau da, **denetik jaten dute**:txoriak, saguak, untxiak, txorien arrautzak, zizareak, intsektuak, fruituak etabar jaten dituzte.

UGALKETA

Azeriak animalia **ugaztunak** dira. Azerien **ugalketa garaia neguan** izaten da. **Bi hilabete** pasatu ondoren azerikumeak jaiotzen dira. Azeriek normalean **5 kume** izaten dituzte emealdi bakoitzean.



PORTAERA

Azeria **animalia bakartia** den arren, **bikoteka bizi** daiteke.

Azeriak **gauez** irtetzen dira ehizatza, bere **usaimen eta entzumen bikainak** aprobetxatuz.

AZERI MOTAK

Munduan azeri-espezie desberdinak daude, adibidez:

AZERI GORRIA: Azeri ugariena da eta mundu guztian aurkitu daiteke. Ile leuna eta gorrixka du.

AZERI ARTIKOA: Ile zuria du eta hotz handiko tokietan bizi da.

FENEK: Azeri txikiena da. Oso belarri luzeak ditu eta Afrikako basamortuetan bizi da.

AZERI GRISA: Hego Amerikan bizi da eta ile grisa du

ARRISKUAK

Animalia munduan azerien etsaiak arranoa eta basakatua dira.

Hala ere, **gizakia** da azeriaren **etsai nagusiena**. Gizakiok azeri asko hitzen ditugu **bere azala erabiltzeko**.



Dena irakurri eta bideoa ikusi ostean, aukeratu erantzun egokia:

ITXURA:

Azeriak txakur tamaina du. Buru eta
mutur ditu. Buztan eta gehienek
ile dute.

BIZTOKIA:

Azeriak munduko bizi dira. Beren bizilekua
toki egiten dituzte, adibidez

ELIKADURA:

Azeriak animalia dira, hau da, denetik jan
dezakete:

UGALKETA:

Azeriaren ugalketa garaia izaten da.
pasa eta gero azerikumeak jaiotzen dira.

PORTAERA:

Azeriak bizi dira. irtetzen dira
ehizatzaera,beren aprobetxatuz.

AZERI MOTAK: Lotu azeri bakoitza bere bizitokiarekin

AZERI GORRIA

Hego Amerikan bizi da

AZERI ARTIKOA

Azeri ugariena da eta mundu guztian aurkitu daiteke

FENEK

Hotz handiko tokietan bizi da

AZERI GRISA

Afrikako basamortuetan bizi da

ARRISKUAK:

Azeriaren nagusiena dira.